

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI AKELARREA

Akelarre txikirako materiala, eskura

Atsegindegina jarri da gaur hitzordua, 18:30etatik 19:30etara, akelarre txikian aterako direnei materiala banatzeko. ||

■ HERNANI ERAKUSKETA

Caballeroren lanak, ikusgai

Agustin Caballerok erakusketa jarri du Biterin. Grabatuak eta marrazkiak ikusi daitezke bertan, hilaren 23ra arte. ||

■ HERNANI LITERATURA

Ipuin kontaketa gaur, Añorgarekin

Pello Añorgak bi ipuin kontaketa saio eskainiko ditu gaur Biterin: 17:30etan 3-4 urtekoentzat, eta 18:00etan, 5-7 urtekoentzat. Gonbidapenak eskatu behar dira aurretik, liburutegian. ||

■ HERNANI WUKRO

Aurkiko lanak salgai, Wukro laguntzeko

Elkano kaleko 6garrenean dagoen Aurki eskulanak dendako lanak salgai jarri dira, eta bildutako dirua erabiliko da Angel Olaranek Wukron duen proiektua laguntzeko. Eskaparetean dauden lanak maiatzaren 31ra arte erosi ahal izango dira, astelehenetan 10:00etatik 13:00etara eta asteazkenetan 16:30etatik 19:30etara. Bestela, telefonoz: 619 800 885. ||

■ HERNANI HERNANI ERROTZEN

Liburu aurkezpena gaur, Beñi Agirrek

Hernani Errotzen taldeko Beñi Agirre hernaniarrak Gipuzkoako historia nafarra liburuaren gaztelaniazko itzulpena aurkeztuko du gaur, 19:00etan, Donostia-ko San Jeronimo kaleko udal liburutegian. Gipuzkoako ikuspegi berria ematen du bertan, euskeraren lurraldean, Euskal Herrian, Nafarroako erresuman eta itsasoari begira kokatuta. Maiatzaren 26an kioskoetan erosi ahal izango da. ||

■ ASTIGARRAGA-HERNANI SAN ISIDRO

Baserritarren omenez festa, Urumea bailaran

Hernanin omenaldi berezia egingo zaie Aristegi eta Illarretsueta Berriko baserritarrei. Astigarragan Foru Plazan izango da festa, eguerdira arte. Zamalbide-Bentak auzoan, igandera arte luzatuko da.

SAN Isidro eguna da gaurkoa, eta festa giroan, baserritarrek omenduko dira bai Hernanin, eta baita Astigarragan ere.

Hernanin, 11:00etako mezarekin hasiko da eguna, San Joan Bataiatzailea elizan, eta segidan, bertsolariak eta esku pelota eta pala partiduak izango dira Tilosetan. Era berean, tartean, 11:45etan, esku pelota partiduaren ondoren, omenaldia egingo zaie aurtengoan, Aristegi baserriko Joxe Mari Zelaia Olano eta Salustiana Irazusta Iraolari, eta Illarretsueta Berriko Roke Miranda Genua eta Arantxa Isasa Urrestarazuri.

Astigarragan, berriz, Foru Plazan izango da festa, goizean goizetik: trikitilariak, prozesioa, meza eta azoka izango dira, eta hamaiketakoaren ondoren, idi-dema eta bertsolariak. Bazkaritan borobildko dute eguna.

Astigarragako Zamalbide-Bentak auzoan, bestalde, asteburura arte luzatuko diren festei emango zaie hasiera gaur, meza, hamaiketakoak, bazkaria eta idi probekin. ||



Hamaketako goxoa ere izaten da aukeran, San Isidro egunarekin.

SAN ISIDRO JAIA HERNANIN

- **11:00**, Meza San Joan Bataiatzailea elizan.
- **Ondoren**, Oier Iurramendi eta Andoni Mujika bertsolariak Tilosetan, eta gizonen arteko pelota partidua: Urkizulnasausti/Arizmendi-Lizeaga.
- **Segidan**, omenaldia: Aristegi baserriko Joxe Mari Zelaia Olano eta

Salustiana Irazusta Iraolari, eta Illarretsueta Berri baserriko Roke Miranda Genua eta Arantxa Isasa Urrestarazuri. *Euria eginez gero, omenaldia udaltzeko arkupeetan egingo da, 11:45etan.

- **Jarraian**, emakumezkoen pala partidua: Maider Mendizabal-Garazi Urdangarin/Amaia Irazustabarrena-Maider Huizi.
- **Bukatze**ko, bertsolariak.

SAN ISIDRO JAIA ASTIGARRAGAKO FORU PLAZAN

- **09:30**, Xapre trikitixa.
- **10:00**, Prozesioa eta meza.
- **Goizean zehar**, Astigarragako Lagatxaga baserriko produktuen erakusketa.
- **11:00**, Hamaiketako herrikoa, Gure Izarra Elkartean.
- **12:30**, Idi-demak: Loiuo Inigo Aurrekoetxearen lau idi eta Kantabriako Antonio Cotareloren hiru idi, Idijabe baikoitzak idiekin orain arte egindako bere marka haustea helburu. 3.298 kiloko harriarekin ariko dira, 30 minutuz.
- **Egunean zehar**, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak.
- **14:30etan**, Herriko bazkaria eta Lagatxaga 'baserri bizia'-ri merezitako esker ona, Gure Izarra elkartean.

SAN ISIDRO JAIAK ZAMALBIDE-BENTAK AUZOAN

- **11:45**, San Isidro zaindariaren ibilaldia elizaren inguruan, eta herri-meza.
- **12:45**, Txupinazoa, salda eta bertsolariak eliz atarian.
- **14:00**, Lagun arteko bazkaria Auzolan Elkartean.
- **18:00**, Idi probak. Intziñarte (Patxi Irarreta), Matxain eta Mixiyua. Idi pareak, 2.000 kiloko harriarekin pisu librean. Sarrera, doan.

■ HERNANI TRANS ZIKLOA

Memoria ariketa kolektiboa, transexualitateaz

Kattalin Miner hernaniarrak gaur aurkeztuko du 'Moio: gordetzea ezinezkoa zen' liburua. Orain 12 urte bere buruaz beste egin zuen Aimar Elozegi Ansa dakarki gogora. Biterin izango da, 19:30etan.

BERDINTASUN Kontseiluak Trans Zikloa antolatu du aste honetarako, eta gaurkoa izango da aurreneko ekitaldia: 19:30etan Biterin, *Moio: gordetzea ezinezkoa zen* liburua

aurkeztuko du Kattalin Miner idazle hernaniarrak.

Hainbat lagun elkarrizketatu ditu bertan, Aimar Elozegi Ansa gazte hernaniar transexualak bere buruaz beste egin zuela 12

urte pasa ondoren, tabuak gainditzeko garai hartan egindako ariketa publikotik zer geratu den ikusteko.

Zikloa borobiltzeko, igandean trans bertso-saioa egingo da

19:00etan Tilosetan. Bertan ariko dira Maialen Lujanbio, Eli Pagola, Beñat Gaztelumendi, Miren Artetxe, Nerea Ibarzabal eta German Urteaga, gai-jar-tzaile Amaia Agirre dutela. ||

euskal pintxo potea
Hernaniko tabernetan maiatzaren 13-tik 17-ra

Taberna parte hartzaileak eta pintxoak:

APEADERO: Gaztagardo
ARALAR: Elurra
ARRI: Aha
ATXUR: Txapela
EKOS: Taki-Taki
GARIN: Piolin

euskal sagardoa + idiazabal gazta duen pintxoak **2€**

GURIA: Gaztagi
HARRESI: Idiazalbardau
JOXE MARI: Trufa de Idiazabal
KIXKAL: Legazpi
OTAEGI: Bizar Zuri
TRIPONTZI: Artzai

uztaberri eguna Hernanin

Maiatzaren 18an, 18:00-21:00
Atsegindegina

2018ko Euskal Sagardoaren aurkezpena eta dastatzea.

GAUR Eguzkitsua jarraituko du zeruak, eta udaberriko tenperatura nagusituko da. Haizeak, berriro ere, ipar-ekialdetik joko du, eta aurreko egunetako giroaren antzekoa izango da. **Min.7° / Max.19°**

BIHAR Aldaketak nabaritzen hasiko dira. Goiza eguzkitsua izango da, baina lainotzera egingo du, eta arratsaldean zaparrada trumotsuren bat bota dezake. Iluntzean freskatzera egingo du. **Min.7° / Max.20°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaeuz: **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

URUMEA DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Bazkideekin batzarra gaur, Doberak

Biterin jarri du hitzordua, 19:00etan.

URTEKO Batzar Orokorra deitu du gaurko Dobera Euskara El-

karteak, eta bazkide guztiei luzatu die deia, bertaratzeko. Biterin jarri du hitzordua, 19:00etan.

Bertan, aurkeztuko dira Dobera eta Kronikako 2018ko me-

moria eta balantzea, eta 2019ko egitasmoak eta aurrekontua. Bazkideetza kuotaz ere hitz egingo da, eta, bukatzeko, bazkideei emango zaie hitza, nahi diren aipamenak egiteko. ||

HERNANI MUSIKA

Hernasax eta Goiz Eguzki taldeek emanaldi bana, ostiral eta larunbatean

Ostiralean, 19:00etan Tilosetan joko du Hernasax saxofoi taldeak, eta Goiz Eguzki abesbatza larunbatean ariko da, 19:00etan Milagrosan.

BI musika emanaldirekin gozatzeko aukera izango da asteburuan, Hernanin.

Aurrena, ostiralean, Hernasax, musika eskolako saxofoi taldeak emango du kontzertua, 19:00etan Tilosetan. Euria eginez gero, Milagrosara mugituko dira. Denera 8 obra joko dituzte, obra klasikoak

edota swing pixka bat daukatena nahastuta.

Hurrena, larunbatean, Goiz Eguzki abesbatza ariko da 19:00etan Milagrosan. Aurrena gizonen korua ariko da, Javier Zubimendiren zuzendaritzapean, eta segidan, emakumeena, Ixiar Zubimendik gidatuta. Emanaldia boro-

biltzeko, guztiak elkarrekin ariko dira. Abeslariak, gainera, ez dira bakarrik ariko. Izan ere, abesti batean Xabier Odriozola biolin-jolea izango dute lagun, eta baita dantzariak ere, eta beste obra batean Boni Agirresarobek lagunduko die txistuarekin, eta Kanariok atabalarekin. ||



12 tabernetan pintxo desberdinak daude aukeran; Ekosen, Taki-Takia.

HERNANI UZTABERRI FESTA

Euskal Sagardoa eta Idiazabal gazta aukeran, etzi arte

Euskal pintxo-potea martxan jarri dute Euskal Sagardoak eta Berriak elkarteko tabernariak. Horrela, ostiralera arte, aukera dago, bi euroren trukean, Euskal Sagardoa eta Idiazabal gaztarekin egindako pintxo bereziak dastatzeko. Era berean, ostiralean Zo-Zongó musika taldea ibiliko da kaleak girotzen 19:00etatik aurrera, eta larunbatean Uztaberri Festa egingo da arratsaldean Atsegindegin. Mikel Garaizabal enologoarekin Euskal Sagardoa dastatu ahal izango da bertan. ||

BERTSO AFARIA
MAIATZAK 25, LARUNBATA
21:00ETAN

Eñaut Martikorena
(Zikuñaga auzoa)

Iker Ormazabal "Tturko"
(Martindegi auzoa)

Andoni Mugika "Anatz"
(Osiñaga)

Hernaniko Bertso Eskolako bertsolariekin
ARRIATZUKO ESKOLAN

OSIÑAGAKO
JAIK
2019

BERTSO-AFARIA: 15 €

Izena emateko telefonoa: 636 253 981
Maiatzak 21 izango da azken eguna

AYTEN - ETXE
TABERNA

Larramendi, 15
943 55 00 46

URUMEA MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Ate irekiak Orona Ideon, larunbatean

Mondragon Unibertsitateak Hernaniko Orona Ideon daukan kanpusean ate irekiak egingo ditu larunbat honetan, 10:30etan hasita. Aukera izango da ikasleen eskutik informazioa eskuratzeko. ||

HERNANI LANBIDE HEZIKETA

Lanbide Heziketa gertutik, larunbatean

Ate irekien jardunaldia egingo da larunbatean Lanbide Heziketan, 11:00etan hasita. Bertan aukeran dauden zikloen inguruko informazioa emango da. Telefonoz ere eskatu dezakete: 943 55 19 58. ||

ASTIGARRAGA-HERNANI MUSEOEN EGUNA

Museotan ekitaldi bereziak, larunbatean

Museoen Nazioarteko Eguna izango da larunbata, eta ekitaldi bereziak izango dira museoetan. Astigarragako Sagardoetxean Udaberri Giroan festa egingo da 17:00etatik aurrera, eta antzerkia, musika eta tailerrak izango dira. Btxigintza tailerretako izena eman daiteke 943 55 05 75 telefonoan edo info@sagardoarenlurraldea.eus helbidean. Hernaniko Chillida Lekun, bestalde, bi bisita gidatu egingo dira familiei zuzenduta: 12:00etan euskeraz eta 17:00etan gaztelaniaz. Izena education@museochillidaleku.com helbidean eman behar da. Era berean, *La casa del vacío* tailerra emango da 11:00etan eta 16:00etan, eta 18:00etatik aurrera, DJ Ruben ariko da musika jartzen. Ekitaldiak doan badira ere, museorako sarrera ordaindu beharko da. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† MILA LUJANBIO IZAGIRRE
(Luis Plazaren alarguna)
Herenegun hil zen, 79 urte zituela
- Goian Bego -

Semeak: Juanpe, Paul (+), Alberto, Ramon eta Mikel;
anai-arrebak: Juani eta Enrique Ibabe (+) eta Maria Luisa;
ezkon anai-arrebak: Maria Josefa Plaza eta Enrique Amiano (+),
Gerardo Plaza (+) eta Mari Carmen Puertas; ilobak, lehengusuak
eta gainerako ahaideek

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte

GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN**
BATAIATZAILA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2019ko maiatzaren 15ean

Helbidea: Akarregi auzoa
OHARRA: Gorputz laguntza bere familia artean egingo da.

MILA LUJANBIO IZAGIRRE

Muxu haundi bat etxekoei

JUANPEREN LAGUNAK

Hernanin, 2019ko maiatzaren 15ean

MILA LUJANBIO IZAGIRRE

Besarkada handi bat zure lagunen partez

MIKELEN LAGUNAK

Hernanin, 2019ko maiatzaren 15ean

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura, ... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)